


ADEL 23

ARTEDRAMA EUSKAL LABORATEGIA



APIRILAREN 10ETIK 15ERA AULESTI-BIZKAIA




ADEL23
ARTEDRAMA EUSKAL
**LABORATEGIA/
TOPAKETAK.**

ArteDrama Euskal Laborategia (ADEL), arte eszenikoetan euskaraz aritzen garenon topagunea da; aktore, zuzendari, antzerkigile zein antzerkizaleentzat urtero zabaltzen den gunea.

Euskal Herriko arte eszenikoetan murgilduta gaudenon arteko eztabaidak, jakintza eta elkartrukeak sustatzeko asmoarekin, astelehenetik larunbatera, 48 orduz guztira, 6 irakasleren tailerrak prestatu ditugu. Ikastaro guztiak euskaraz izango dira, eta matrikula 450 €koa (lotarako lekua eta otorduak barne).

Laborategi gisa jaiotako esperientzia honetara gonbidatuta zaude!



IRAKASLEA: ANDER LIPUS

Markina-Xemein (1971). Madrilgo William Layton Antzerki Laborategian egin zituen lehen ikasketak. Bilbora itzulita, beste artista batzuekin batera Mina Espazioa eta Antzerkiola Imaginarioa sortu zituen.

Antzerki antropologian aditua, zenbait ikastaro eta antzerki eskoletan irakasle izan da.

2007an ArteDrama arte eszenikoen plataforma sortu zuen, eta 2012an, proiektu pertsonalak bideratzeko, Huts Teatroa konpainia. Egun, maite duen antzerkia egiten jarraitzen du, zuzendari zein aktore lanetan.

MEKANIKA ETA POETIKA |

Aktorearentzako tresnak partekatuko ditut, gorputzaren kontzientzia eta aktorearen jokoan zentratuz. Alde teknikoak jorratu ondoren alde poetikora pasatuko gara. Inprobisazioak eta ekintza txikien sorkuntzak hartuko dute garrantzia ikastaroaren bigarren partean. Tranpa, estrategia, jolasa, dantza, jokia, erritmoa, irudimena... eta sortu! Mekanikatik poetikara.

Ikastaroa: Mekanika eta poetika.
Iraupena: 8 ordu.



IRAKASLEA: MYRIAM PEREZ CAZABON

Dantzan bere lehen urratsak Irun eta Donostia artean ematen ditu. Dantza garaikideko goi-mailako ikasketak Rotterdameko CODARTS goi-mailako arte eskolan burutzen ditu. 2004tik dabil dantza arloan, sortzaile, dantzari eta irakasle moduan. Lehen lanak MAIMY kolektibo gisa sortzen ditu, Maite Arroitauregi musikariarekin eta Victor Iriarte zinegilearekin batera. Geroztik, musika, antzerkia, zinegintza, argazkilaritza, disziplina anitzeko instalakuntza, eskultura, eta dantza bezalako arte desberdinekin elkarlanean dabil. Interes pertsonalengatik, eta norbere hizkuntza koreografikoan ikertzeko beharragatik, 2016an bere proiektuaren ibilbideari hasiera ematen dio, konpainia modura NERI(H)ARI izenpean. Ibilbide honetan NERE AZALEAN ARROTZ (2017), MUTU (2018), ICEBERG (2019), HIRU(3) (2021) eta NUNAVUT (2022) piezak estreinatu ditu. Egun, 40.BIDEGURUTZEA proiektuan dabil murgildurik. Dantzaren transmisioaren eta hezkuntzaren alderdiari eutsiz, hainbat laborategi eskaintzen jarraitzen du.

**Ikastaroa: Ez bat eta ez bi, baizik eta HIRU(3).
Iraupena: 8 ordu.**

EZ BAT ETA EZ BI, BAIZIK ETA HIRU(3) |

Inguruarekin eta elkarrekin komunikatzen ari gara uneoro, joan-etorrien infinitu errepikapenetan eta itxaronaldietan. Bidean aurkitzen dira galderak, aukerak, gorpuzkerak eta gertaerak. Bidean ematen dira etengabeko eraldatzeak, egokitzeak eta eraikitzeak. Eta erabaki guztiak... Aukerak ez baitira ez bat eta ez bi, baizik eta... HIRU(3). Espazioa, denbora eta gorputzak lanerako zutabe nagusitzat hartuta, eta hauen artean eta isilean gertatzen den komunikazio hori eraikitzeko ahaleginean, jolaserako inprobisaketa pauta ezberdinak proposatuko dira. Bidean landuko dira ere begiradaren/entzumenaren premia, orain/hemen egotea eta zaintzarako-distantzia-minimoa bezalako ideiak.



IRAKASLEA: IÑAKI RIKARTE

RESADen lizentziaduna. Aktore aritu da CDN eta CNTCn, eta, besteak beste, zuzendari hauek izan ditu gidari: Ernesto Caballero, Eduardo Vasco, Alfredo Sanzol, Ana Zamora edo Ignacio García May. Euskal Herrian, Tanttaka konpainiaren ohiko kolaboratzailea izan da. Horrez gain, hamabost bat ikuskizun zuzendu ditu hainbat talderentzat. Hauek dira horietako batzuk: CDN (Supernormales), Joven CNTC (El desdén con el desdén), Kulunka Teatro (André eta Dorine, Solitudes, QuitamiedoS, Forever), Teatro Paraíso (Pulgarcito, ÚniKo)....

MASKARAK |

Ikastaro honetan, Kulunka konpainiak maskara espresiboaren erabileran egiten duen lanera hurbilpen orokor bat egin nahi da. Parte-hartzaileak sortzaile izango dira, bai eszenatoki barruan, bai kanpoan. Barrutik sortzeko orduan, keinua depuratzen duen eta interlokutore nagusi publikoa duen teknika aplikatu beharko dute, maskara eramateko zailtasunei aurre egiten dieten bitartean (ikuspen urria, arnasa hartzeko zailtasunak, kidea zertan ari den ez jakitea...). Halaber, kanpotik, lanean ari diren aktoreen "begi" izango dira, arazo dramaturgikoentzat, sortu ahala, irtenbideak proposatuz.

Ikastaroa: Maskarak.
Iraupena: 8 ordu.



IRAKASLEA: ANE SAGÜÉS

Aktorea eta sortzailea. Bere haurtzarotik antzerkigile familia batean bizi izan da, pentsamendu kritikoa, errefusa eta arte-diziplinekiko gorrotoa eta maitasuna garatuz. Guzti hau bere sormen-prozesuen abiapuntua izan da. Arteekin izan duen lehen harreman sentimentala arte-martzialen bitartez izan da eta horrek diziplina handia eman dio lan egiteko orduan. 2019. urtean William Layton antzerki-laborategian jarraitu zuen antzerkia ikasten, Atikus Teatro konpainiarekin lan egiten zuen bitartean. Feten errebelazio saria irabazi zuen 2016an. Horrez gain, klaseak eman izan ditu eta antzezlana zuzendu. Azken urtean, Nacho Gomararen lan performatiko/gastronomiko batean parte hartu du "Estaciones Sonoras" festivalaren barruan eta Las Nenas antzerki konpainia sortu du. Konpainiaren "Ramos y Gramos" antzezlana, Nafarroako Gazte Artearen Topaketetako lehenengo saria irabazi du. Orain, "Hondamendia" Artedrama eta Axut-en azken produkzioan ari da.

Ikastaroa: Narzizsta narkotikoak.
Iraupena: 8 ordu.

NARZIZSTA NARKOTIKOAK |

Zure narzisisimo absolututik abiatuta, kutsu fribolo, poetiko, errebelde, makabro eta bortizetan oinarritutako sortze-espazio baten bilaketan arituko gara. Biolentziaz jabetuko gara, biolentziaren ikuspuntua berreraikitze, leku errebelde eta errugabe batetik, utopiak sortzeko helburuarekin. Lantegi honen adar garrantzitsuenetariko bat, kolektibitatean lanean aritzea izango da, inprobisazioak erabiliz, taldearen hizkuntza artistiko propio bat eraikitze.

IRAKASLEA: OIER ZUÑIGA

Iruñean bizi den aktore eta artista bisuala. Bertatik garatu du azken hamar urteotan jardura artistiko profesionala. Ilustrazioan, arte plastikoetan eta arte eszenikoetan egin du bereziki ibilbidea; performance artearen ikerketan murgiltzeak egin ditu azken aldian ere. Arte dramatikoko ikasketa profesionalak egin zituen ENT- NAEn eta Arteko Gradua EHUUn. NUP-Uharteko Arte Garaikideko Zentroan praktika artistiko eta ikasketa kulturalen masterra du. Proposamen eszeniko ezberdinetan egin du lan, bai eta ilustrazio aplikatuko proiektuak, proiektu artistiko pertsonalak eta arte bisualetako lanak garatu ere. Jarduera profesionala zein biziduna artearen ikuspegitik praktikatzea du xede. Inguratzen duen hori, praktika artistikoaren bidez ulertzea interesatzen zaio. Lanari ekiteko, desirak, kezak, inguratzen duen lurraldearen kontzepzioak edota adierazpen zein desira politiko-kulturalak, bultzada sortzailearen oinarri ditu. Horren guztiaren ondorioz, uztartu egin ditu arte arloko jardura profesionala eta elkarte eta herri-adierazpen kulturetan parte hartzea.

Ikastaroa: Desastrearen kutxa.
Iraupena: 8 ordu.

DESASTREAREN KUTXA |

Gure inguruari so egin, zer dugu kontatzeko? Ideia bat dugu buruan, nondik hasi? Kezka bat eszenan nola gorpuztu? Sorkuntzan nola ekin? Geure baitan dauden irudiak, emozioak eta ideiak eszenarako errealitate bihurtzeko lan eginen dugu ikastaroan. Ibilbide ezberdinak jorratuko ditugu, bulkadak, norbanakoak zein kolektiboak, arte espresio bilakatzeko. Helburu argia: ahalik eta material gehien biltzea gure desastrearen kutxan.



IRAKASLEA: ITZIAR MANERO

Zuzenbidean graduatua eta Giza Eskubideetan, Demokrazian eta Globalizazioan masterra dauka. Arte eszenikoak Escuela Nave73 eskolan ikasi zituen eta zinema Central de Cine-n, Madrilen. Horretaz gain, zenbait antzerkigilerekin entrenatu da, euren artean, Pablo Messiez, Andrea Jiménez (Teatro en Vilo) eta Antonio Rojano. Hainbait antzerki konpainiarekin lan egin du aktore gisa, euren artean, La Tristura (Future Lovers, 2018-2023) eta El Pont Flotant (Acampada, 2019-2023). Bi konpainia hauekin Europa eta estatu osoan zehar biratzeko aukera izan du. Zineman eta telebistan ere lan egin du Días mejores (Amazon Prime, 2022-2023) eta Itxaso (EITB, 2023) telesailetan eta Las chicas están bien (Itsaso Arana, 2023) filmean, adibidez. Aktore eta sortzaile lanak uztartzen ditu Aves Migratorias eta Quemar las Naves konpainietan. Euren lanak Madrilgo eta Madril kanpoko hainbat antzoki eta jaialditan ikusi ahal izan dira. MEMORIA bere bakarkako lehen antzezlana da eta 2022ko urriaren 19an estreinatu zen Bilboko BAD jaialdian.

Ikastaroa: Nondik hasi sortzen.
Iraupena: 8 ordu.

NONDIK HASI SORTZEN |

Batzuetan antzezlari bat sortzeko ideia bat daukagu, baina ez dakigu nola landu ideia hori. Harengan sinisten dugu, antzezlari bihurtzeko uste dugu, baina ez dakigu sorkuntza prozesua nondik hasi. Tailer honetan, teoria eta praktikaren bidez, niretzako erreferenteak diren konpainia batzuen lanari buruz hitz egin eta haiengandik ikasitako zenbait ariketa konpartituko ditut. Nire lanarentzako baliagarriak izan diren lan-tresnak dira. Batzuk ikasi nituen bezala erabili izan ditut eta beste batzuk eraldatuz joan naiz, nire metodologia propioa sortzeko bidean. Aurkikuntza txiki hauek konpartitzea da asmoa, sortzeko gogoak dituen beste norbaitentzako baliagarriak izan daitezkeelakoan.



Arte Dra ma

arte
eszenikoen
plataforma

ArteDrama
Arte Eszenikoen Plataforma.
Informazioa eta matrikula:

info@artedrama.com
Tel: (+34) 615 779 511

